



ARANTZAKO UDALA

www.arantza.eu

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)

☎ 948 634 005

📠 948 634 192

arantza.udala@terra.es

2012KO IRAILAREN 20KO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.

Batzarra: Ohiko bilera.

Deialdia: Lehenengoa.

Eguna: 2012.09.20.

Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Jaime Iturria Mitxelena jn.

Zinegotziak:

Imanol Artola Guridi jn.

Ander Almandotz Indakoetxea jn.

Koldobike Gorostiza Uriguen and.

Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn

Jose Ignacio Madariaga Vergara jn.

Bertaratu ez direnak:

Inor.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

1.-Azkeneko aktaren onespena.

2.-Herriko argiteria aldatzeko eta moldatzeko obren esleipena.

3.-Gizarte Enplegu Babestuari buruzko eskaera.

4.-Alkatearen ebazpenak.

5.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.

2012ko abuztuaren 30ean egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez,
ONARTU DUTE.

2.-HERRIKO ARGITERIA ALDATZEKO ETA MOLDATZEKO OBREN ESLEIPENA.

Arantzako Udalak diru laguntza lortu du herriko argiteria aldatzeko eta moldatzeko.
2012eko abuztuaren 30ean egindako bileran erabaki zen obrak esleitzeko proiektua eta espedientea onartzea, baldintza ekonomiko-administratiboko plegua onartzea, publizitate gabeko prozedura negoziatua erabiliz eta eskaintza onuragarria aukeratzeko irizpideak onartzuz. Eta proposamenak gutxienez 3 enpresei eskatzea, gonbidapena bidaliz.

Gonbidapena ondorengo 5 enpresei bidali da:

-Argi Iturri elektrikariak S.L.

-Andueza-Iriarte S.L.

-Ekoleds innovations S.L.

-Kesma electricidad S.L.

-Instalaciones Jaurena S.L.

Epean barne ondorengo enpresak aurkeztu dute euren proposamena:

-Argi Iturri elektrikariak S.L.

-Andueza-Iriarte S.L.

-Ekoleds innovations S.L.

Kesma electricidad S.L. enpresak idatzi bat bidali du adieraziz ez duela bere proposamenarik aurkezten lana ezin duelakoz eskatzen den epean bete, lan zama dela eta.

Lehendik ireki da 1. kartazala, eskatutako dokumentazio administratiboari buruz. Enpresa guztiak aurkeztu dute pleguan eskatutakoa.

Ondoren 2. kartazala ireki da eta baloratu da pleguaren arabera.

Hona hemen enpresa bakoitzak lortutako puntuazioa:

1.-MEMORIA TEKNIKOAREN PUNTUAZIOA.

-ARGI ITURRI ELEKTRIKARIAK S.L.

-Jaime Iturria Mitxelena: 10 PUNTU.

-Jose Ignacio Madariaga Vergara: 10 PUNTU.

-José Javier Mitxelena Ordoki:10 PUNTU.

-Imanol Artola Guridi: 10 PUNTU

-Ander Almandoz Indakoetxea:8 PUNTU.

-Koldobide Gorostiza Uriguen: 8 PUNTU.

DENETARA: 56 PUNTU/6- 9,33 PUNTU

-EKOLEDs INNOVATIONS S.L.

-Jaime Iturria Mitxelena: 10 PUNTU.

-Jose Ignacio Madariaga Vergara: 10 PUNTU.

-José Javier Mitxelena Ordoki:10 PUNTU.

-Imanol Artola Guridi: 4 PUNTU

-Ander Almandoz Indakoetxea:8 PUNTU.

-Koldobide Gorostiza Uriguen: 8 PUNTU.

DENETARA: 50 PUNTU /6-8,33 PUNTU.

-ANDUEZA-IRIARTE S.L.

-Jaime Iturria Mitxelena: 10 PUNTU.

-Jose Ignacio Madariaga Vergara: 10 PUNTU.

-José Javier Mitxelena Ordoki:10 PUNTU.

-Imanol Artola Guridi: 10 PUNTU

-Ander Almandoz Indakoetxea:8 PUNTU.

-Koldobide Gorostiza Uriguen: 8 PUNTU.

DENETARA: 56 PUNTU/6- 9,33 PUNTU.

2.-OBRA ONDORENGO ZERBITZUA:



-ARGI ITURRI ELEKTRIKARIAK S.L.

- Jaime Iturria Mitxelena: 5 PUNTU.
 - Jose Ignacio Madariaga Vergara: 4 PUNTU.
 - José Javier Mitxelena Ordoki: 7 PUNTU.
 - Imanol Artola Guridi: 7 PUNTU
 - Ander Almandoz Indakoetxea:10 PUNTU.
 - Koldobide Gorostiza Uriguen: 7 PUNTU.
- DENETARA: 40 PUNTU/6- 6,67 PUNTU**

-EKOLEDs INNOVATIONS S.L.

- Jaime Iturria Mitxelena: 9 PUNTU.
 - Jose Ignacio Madariaga Vergara: 6 PUNTU.
 - José Javier Mitxelena Ordoki:7 PUNTU.
 - Imanol Artola Guridi: 4 PUNTU
 - Ander Almandoz Indakoetxea:9 PUNTU.
 - Koldobide Gorostiza Uriguen: 8 PUNTU.
- DENETARA: 43 PUNTU /6-7,17 PUNTU.**

-ANDUEZA-IRIARTE S.L.

- Jaime Iturria Mitxelena: 10 PUNTU.
 - Jose Ignacio Madariaga Vergara: 10 PUNTU.
 - José Javier Mitxelena Ordoki:9 PUNTU.
 - Imanol Artola Guridi: 10 PUNTU
 - Ander Almandoz Indakoetxea:10 PUNTU.
 - Koldobide Gorostiza Uriguen: 6 PUNTU.
- DENETARA: 55 PUNTU/6- 9,17 PUNTU.**

	MEMORIA TEKNIKO	OBRA ONDORENGO ZERBITZUA
ARGI ITURRI ELEKTRIKARIAK S.L.	9,33 PUNTU	6,67 PUNTU
ANDUEZA-IRIARTE S.L.	9,33 PUNTU	9,17 PUNTU
EKOLEDs INNOVATIONS S.L.	8,33 PUNTU	7,17 PUNTU

Eta azkenik, 3. kartazalak ireki dira (proposamen ekonomikoa-obraren aurrekontua 111.472,19 euro, BEZ kanpo- bermearen epea eta hobekuntzak).

Enpresek aurkeztutako proposamen ekonomikoak hauek dira:

-ARGI ITURRI ELEKTRIKARIAK S.L.:102.417,42 euro,BEZ KANPO, proposatu du.

-ANDUEZA-IRIARTE S.L.: 104.472,19 euro,BEZ KANPO, proposatu du.

-EKOLEDs INNOVATIONS S.L.: 94.299,21 euro,BEZ KANPO, proposatu du.

Bertzalde Argi Iturri elektrikariak S.L. enpresak 9 urteko bermea ematen du eta Ekoleds Innovations S.L. enpresak 10 urteko epea.

Hona hemen enpresa bakoitzak lortutako puntuazioa zati honetan:

-HOBKUNTZAK:

-ARGI ITURRI ELEKTRIKARIAK S.L.

- Jaime Iturria Mitxelena: 8 PUNTU.
 - Jose Ignacio Madariaga Vergara: 6 PUNTU.
 - José Javier Mitxelena Ordoki: 7 PUNTU.
 - Imanol Artola Guridi: 10 PUNTU.
 - Ander Almandoz Indakoetxea: 6 PUNTU.
 - Koldobide Gorostiza Uriguen: 5 PUNTU.
- DENETARA: 42 PUNTU/6- 7 PUNTU**

-EKOLEDs INNOVATIONS S.L.

- Jaime Iturria Mitxelena: 8 PUNTU.
 - Jose Ignacio Madariaga Vergara: 6 PUNTU.
 - José Javier Mitxelena Ordoki: 10 PUNTU.
 - Imanol Artola Guridi: 5 PUNTU
 - Ander Almandoz Indakoetxea: 9 PUNTU.
 - Koldobide Gorostiza Uriguen: 5 PUNTU.
- DENETARA: 43 PUNTU /6-7,17 PUNTU.**

-ANDUEZA-IRIARTE S.L.

- Jaime Iturria Mitxelena: 10 PUNTU.
 - Jose Ignacio Madariaga Vergara: 10 PUNTU.
 - José Javier Mitxelena Ordoki: 8 PUNTU.
 - Imanol Artola Guridi: 10 PUNTU
 - Ander Almandoz Indakoetxea: 7 PUNTU.
 - Koldobide Gorostiza Uriguen: 5 PUNTU.
- DENETARA: 50 PUNTU/6- 8,33 PUNTU.**

	PROPOSAMEN EKONOMIKOA	BERMEA	HOBKUNTZAK
ARGI ITURRI ELEKTRIKARIAK S.L.	55,24 PUNTU	4 PUNTU	7 PUNTU
ANDUEZA- IRIARTE S.L.	54,15 PUNTU	0 PUNTU	8,33 PUNTU
EKOLEDs INNOVATIONS S.L.	60,00 PUNTU	6 PUNTU	7,17 PUNTU

Ondorioz enpresa bakoitzak lortutako puntuazioa hauxe da:



-ARGI ITURRI ELEKTRIKARIAK S.L.: $9,33+6,67+55,24+4,00+7,00=$ **82,24**

puntu.

-ANDUEZA-IRIARTE S.L.: $9,33+9,17+54,15+0+8,33=$ **80,98 puntu.**

-EKOLEDs INNOVATIONS S.L.: $8,33+7,17+60,00+6,00+7,17=$ **88,67 puntu.**

Imanol Artola jaunak adierazi du ez dagoela ados prozedurarekin eta idatzi bat aurkeztuko duela honen inguruan. Alkateari gezurti eta tramposo bat dela erran dio eta gai honetan interesa duela.

Alkateak erantzun dio bere helburua Berdin enpresari zuzenean esleitzea zela eta hori da nik ez dudana onartu.

Imanol Artola jaunak alde egin du bilera aretotik.

Jose Ignacio Madariaga Vergara jauna bileratik ateri da, lanangatik.

Ondoren, aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Ekoleds Innovations S.L. enpresari esleitzea Arantzako argiteria publikoa aldatzeko eta hobetzeko lanak 94.299,21 eurotan, BEZ kanpo, proposamenak puntuazio gehiena lortu duelakoz, Virgilio Musgo Garde teknikariak egindako proiektuaren arabera eta enpresa berak egindako hobekuntzak barne.

2) Ekoleds Innovations S.L. enpresari jakinaraztea kontratua sinatzeko baldintza pleguaren 12. puntuan jarritakoa aurkeztu beharko duela.

3) Akordio hau enpresa guztiei jakinaraztea.

3.-GIZARTE ENPLEGU BABESTUARI BURUZKO ESKAERA.

Ikusirik Nafarroako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko teknikariek aurkeztutako idatzia Gizarte Enplegu Babestua mantentzeko buruz.

Ikusirik Nafarroako Gobernuak horretarako onartutako partidaren gorabeherak, murriztuz azken 2 urtetan; arriskua izanik proiektuetako asko desagertzeko edo murrizketen ondorioz egoera larrian geratzeko.

Hori dena kontuan hartuz, aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Nafarroako Parlamentuari ondorengo akordio hau bidaltzea puntu hauek eskatuz:

-2013ko Gizarte Enplegu Babestuarendako kontusaila, egungo krisi egoeraren behar sozialaren mailarekin bat datorrena, eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei informazioa ematea bitarteko horrek 2013an izanen duen diru-kopurua errealari buruz.

-Gizarteratze-errenta jasotzen dutenen kontratazioa Gizarte Enplegu Babestuan batzea, eta bere kontusailerako izatea 2012an beste deialdi batzuetan sakabanatu diren zenbatekoak (1,625 milioi euro gehi 233/2012 deialdian perfil horietarako erabilitakoa).

-Gizarte Enplegu Babestuarendako diru laguntzaren deialdia lehenbailehen argitaratu eta ebatzea, gutxienez urte bakoitzeko otsailean (2012ko uztailean oraindik ez dago ebatzen), bestela, nabarmen zailtzen da proiektuak abian jarri eta horiek finantzatzea.

4.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (2012ko 74tik 82 arte).

5.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez da izan.

Gai zerrendatik kanpo eta, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaia eztabaidatu da:

6.-IKURREN MOZIOA.

Ikusirik ikurren mozioaren edukia.

Aho batez, ERABAKI DUTE :

1) Herri baten sinboloak eta ikurrak ezin direla inposatu adierazi nahi diogu Nafarroako Gobernuari baita Espainiako Gobernuak Nafarroan duen delegaritzari eta ahalegin horretan ari diren guztiei. Euren sinboloak inposatzeagatik, gure nortasuna, gure pentsamoldea eta gure izaera ez dutela aldatuko argi utzi nahi diegu.

2) Espainako bandera jarraraztea eta ikurrina kenaraztea herritarren gehiengoaren borondatearen kontrako dela salatu nahi dugu, herri honetako gehiengo politiko eta sozialaren kontrako hain zuzen.

3) Salatu nahi dugu gai honekin UPN eta bere gobernuak duten jarrera eta honetaz egiten duten erabilera partidista. Herriaren alde lan egin eta herriaren kezkez arduratu beharrean, ikurrak inposatzea eta geure nortasuna ezabatzeko ahaleginetan aritzea inolaz ere ez dela bidea adierazi nahi diegu.

4) Gure ikurren alde, eta inposatutako ikurren aurka, mozio hau onartzen dugun alderdiak eta udalak elkarrekin herri ekimen bat lantzeko konpromisoa hartzen dugu.

5) Erabaki hau ohiko bideetatik jakinaraziko zaie herritarrei, Nafarroako Gobernuako Lehendakariari, Toki Administrazioako Kontseilariari eta Espainako Gobernuak Nafarroan duen ordezkariari.

7.-IRAILAREN 26KO GREBA OROKORRARAKO DEIALDIA.

Ikusirik irailaren 26rako egindako greba orokorraren deialdia.

Ikusirik Baztan-Bidasoako hautetsiek bat egiten dutela deialdi horrekin.

Ikusirik horri buruz bidalitako idatzia.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1)Irailaren 26rako greba orokorrari buruzko manifestua onartzea.

Bertzerik gabe, gaueko 22:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,
Jaime Iturria Mitxelena jn.

